


## Amara Berriko kultur etxea handiagoa

Joan den larunbatean zabaldu zen Anoetako estadioaren behealdean, haurrentzako Txiki-Jai zegoen tokian, Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxeko areto berria. 800 metroko gune honetan, hitzaldietarako, antzerkirako edota zine emaldietarako aretoa, erakustaretoa, taile-rrak egiteko hiru gela eta gaztelekua egin dituzte. Gaztelekuari dagokionez, informazio bulegoa, komikiak eta aldizkariak eta hainbat joko daude. Gogoratu behar da 2001eko apiriletik zabalik dagoen Ernest Lluch kultur etxeko beste aretoak ume eta helduentzako liburutegia, taile-rrak egiteko lau gela eta haur txokoa di-tuela.



## Ika-mika Elorzaren jokabideagatik

Hauteskunde Batzordeak debekatutako aldizkarietako baten azala.



Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak Bidebieta eta Altzari buruz egindako aldizkaria banatzea debekatu zion Udalari apirilaren 16an, eta San Martin merkatuan jarritako "Donostia. Hiri berritzailea" erakusketa kentzea agindu zuen. Batzordeak dioenez, aldizkaria eta erakusketa "hauteskunde propaganda izan daitezke". EA-EAJ koalizioak Odon Elorza alkatearen jokaera kritikatu du: "Hauteskunde Batzordeak Odon Elorzak donostiar guztion diruarekin bere burua promozionatu nahi izan duela erakutsi du". DSA-k bestalde, hauteskunde kanpaina atarian, Donostiako egunkari batean udal informazioari buruzko gehigarri bat kaleratu berri izana salatu du eta Elorzaren jarrerarekin lotu du.

euskararen donostia

patronatu



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

### Zinea

•• "Emil eta detektibeak"

Tinko.

Estreinaldia: apirilaren 11an,  
Principe aretoan

### Haur

### antzerkia

•• "Kokoroko"

Txiskiri

Apirilaren 12an, 18:00etan,  
Alza Kultur Etxean

### Musika

•• "Kantu eta Dantza Jira"

Apirilaren 11an, 20:00etan,  
Biltzeko tokia: Larrotxene  
Kultur Etxean

•• Kantu afaria

Apirilaren 11an, Haizalde  
elkartean egoitza.  
Bernart Etxepare plaza.  
Intxaurrondo. Donostia.  
Afarirako txartela  
Larrotxene Kultur Etxean

### Ikastaroa

•• Gidoi ikastaroa

Pausoka eskola  
Apirilaren 28tik  
ekainaren 4a arte  
Astelehen eta asteazkenetan  
16:00etatik 19:00etara  
Mundaiz bidea 5, 20012  
Tel.: 943 297 111

euskaraz.net

**Alboka**  
*Taberna*  
DONOSTIA

**BAR - ASADOR**  
*Jaizkibel*  
Autonomia 9, behea  
☎ 943 45 83 72      20006 DONOSTIA

Erdialdeko txokorik onenak

*Museo Bordonaba del Whisky*  
Taberna  
DONOSTIA  
Bulebarra, 5  
Tel.: 943 426478

*La Antigua Cerveceria (Gure-Txokoa)*  
Eguneroko bazkaria  
San Martin 38  
DONOSTIA